

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEN TXOSTENARI BURUZKOA, 2008

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskadiko Toki Erakundeen gaineko txostena jaulki du, 2008ko ekitaldiari buruzkoa. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Erakunde fiskalizatzaileak EA Eren udalen eta udalaz gaindiko erakundeen Kontu Orokorrak aztertu ditu, eduki formala eta toki alorraren finantza egoera balio-neurtzen duela. 251 udaletatik 244 udalen Kontuak aztertu dira eta udalaz gaindiko 63 erakundeetatik, 55enak. Txostenean, gainera, kontuak aurkeztu ez dituzten udal eta udalaz gaindiko erakundeak bereizi dira.

Udalen finantza egoerari dagokionez, txostenak azpimarratu du 2008/12/31n erabilitako batez besteko zorpetzea udaleko sarrera arrunten gainean % 3,16koa izan dela. Biztanleko batez besteko zorpetzea 227 eurokoa da. Guztira 74 udalek ez dute zorpetzerik eta 40 udalek, berriz, biztanleko baliatutako zorraren batez bestekoa gaintitzen dute.

Halaber, inbertsio garbiak aurreko ekitaldiarekiko % 10eko igoaldia izan duela azaleratu da eta horrek biztanleko 277 euro egiten ditu batez beste.

Presio fiskala (zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak) biztanleko euroetan neurtuta 502 eurora arte igo da, 2007ko ekitaldian zuen maila berera.

Udalaz gaindiko erakundeei dagokien zorpetzeak % 11n gaintitu du aurreko urtekoa eta 460 milioi euro egin ditu guztira. Zor honen zatirik handiena, % 81, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren jabetzakoa da.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak txostenean adierazi du erakunde hauek ematen dituzten zerbitzuen kostua, uraren hornidura eta saneamendua, garraio eta baso aprobetxamendua salbuetsita, nagusiki horietan partaide diren udaletatik edo beste erakunde batzuetatik jasotako diru-laguntza arrunten bitartez finantzatzen dela.

Txostenari gehitutako eranskinetan, gainera, kontuak auditatuak dituzten udalen zerrendaz gain, horietan azaleratu diren hutsen zerrenda eta udalen araberako xehapena ere aurkeztu da. Berebat, HKEEren web orriko lotuneari buruzko informazioa ere ematen da; bertan erantsitako likidazioak ez ezik, erakundeen arabera xehatutako ekonomia-finantza izaerako hainbat informazio ere eskura daiteke.